

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sanz Lehendakariak Gamesaren eraikin berri baten lehen harria jarri du

Eraikin berria Sarrigurengo (Eguesibar) Berrikuntzaren Hirian eraikiko dute, Iruñerrian

Lunes, 21 de marzo de 2011

Nafarroako

Lehendakaria, Miguel Sanz Sesma, izan da buru, gaur Sarrigurenen (Eguesibar) Gamesa Corporación Tecnológica enpresaren eraikin berriaren lehen harria jartzeko ekitaldian. Enpresak eraikina jartzeko aukeratu duen lekua Berrikuntzaren Hirian dago.



Sanz Lehendakaria arkitektoaren azalpenak entzuten etorkizuneko eraikinaren inguruan

Sanz Lehendakariarekin batera

izan dira José María Roig Aldasoro, Berrikuntza, Enpresa eta Lan kontseilaria, Elena Torres Miranda, Parlamentuko presidentea, Jorge Calvet, Gamesako presidentea, eta José A. Andía, Eguesibarko alkatea. Sanzek zera azpimarratu du: "Gamesaz hitz egitea iraganaz, orainaz eta etorkizunaz hitz egitea da". Gamera iragana dela aipatu du Gobernuaren eta enpresaren arteko lotura aspaldikoa delako eta orainean argi ikusten delako. Hau erantsi du: "Gure oraina aktiboa da eta elkarlanean, garatzen, ekonomiari laguntzen, etab. ari gara, energia berriztagarriek eta osagari eolikoek eginkizun garrantzitsua baitute". "Gure orainak, beraz, enpresak gure erkidegoan burutzen duen lan handia adierazten du".

Azkenik, Lehendakariak esan du lehen harria jartzeko ekitaldiak etorkizunari egiten diola erreferentzia. "Itxaropena ematen duen etorkizuna da eta Gamesak Nafarroako gizartearekin duen konpromisoa betetzeko beste aurrerapauso bat da".

Ekitaldian, Antonio Vaillo arkitektoak, Vaillo & Irigaray y Asociados estudiokoak, eraikinaren proiektua aurkeztu du. Jarraian, mintzaldien ondoren, agintariek oroipen akta sinatu eta lehen harria jarri dute.

Sarrigurengo Berrikuntzaren Hiria

Berrikuntzaren Hiria ezagutza sortzea oinarri duten jarduera ekonomikoen gunea da. Duela hamar urte baino gehiago pentsatu eta gauzatu zuen Nafarroako Gobernuak Eguesibarko Udalarekin elkarlanean.

Hiria duela zortzi urte inauguratu zuten eta energia eta ingurumena nagusi dituen toki garrantzitsu bihurtu da. Enpresa pribatu eta publikoak ezarri zirenez, 1.900 pertsonak baino gehiagok egiten dute lan hiri horretan. Langile horien artean bostehundik gora langile zuzenean jarduten dira I+G+B sustatzeko proiektuetan.



Sanz Lehendakaria lehen harria jartzen

Galería de fotos



Sanz Lehendakaria sinatutako akta kutxan sartzen



Eraikin berria izango denaren irudia